

FITXA METODOLOGIKOA

SALGAIAK ERREPIDEZ GARRAIATZEAREN

ESTADÍSTIKA (132714)

Identifikazioa

Eragiketaren izena.

Salgaiak errepidez garraiatzearen estatistika.
Errepide bidezko salgai garraioaren inguruko eragiketa estatistikoak ibilgailu astunek garraio eragiketen inguruko informazioa jasotzen du sektorearen jardueramaila neurtzeko.

Eragiketaren kodea.

132714 (3/2014 Legea, azaroaren 13koa, 2014-2017 Euskal Estatistika Planari buruzkoa).

Organismo arduraduna.

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila.

Beste organismo parte-hartzaileak.

Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística. Sustapen Ministerioa.

Gai-eremua.

Zerbitzu-sektorea.

Hedatzeko aldizkakotasuna. Hiru

hilekoa.

Eragiketa-mota. Besteren

bat.

Metodologia datuen iturrien arabera.

Bestelako emaitza estatistikoetatik eratorritako datuak lortzea.

Helburuak

Salgaiak errepidez garraiatzen dituzten ibilgailuek egindako garraioeragiketak ikertzea.

Errepide bidezko salgaien garraioaren estatistikaren helburu nagusia, ibilgailu astunen garraio eragiketak kuantifikatzea da Euskal Autonomia Erkidegoan sektoreko jarduera-maila neurtzeko.

Azken finean, garraio eragiketen edo salgaien desplazamenduen inguruko unean uneko eta eguneratutako informazioa eskaini nahi da, zamaten diren irteera puntu batetik abiatuta deskarga egiten den helmuga puntu batera arte. Honako helburuak betetzea xede dituen sistematizazio-maila gorena izateko:

- Administrazio publikoek sektorearen inguruko plangintzak garatzeko oinarri gisa erabil ditzaten.
- Informazio beharrak asetzeko, bai administrazio publikoen ikuspuntutik, bai garraiolari zein erabiltzaileen aldetik ere.
- Profesional, organismo edo erakundeentzat erabilgarri izatea, eta, gerora, errepide bidezko salgaien garraioarekin lotutako esperientzia berrientzat euskarri gisa erabiltzeko.

Ikertuko diren aldagai nagusiak

Tona eta tona kilometroko desplazamendu motaren arabera:

- Barne-mailan: udalerrri barrukoa, udalerrri artekoa, eskualde barrukoa, eskualde artekoa
- Nazioartekoa: inportazioak, esportazioak, hirugarrenen arteko trafikoa

Tona eta tona kilometroko zerbitzu motaren arabera:

- Publikoa
- Pribatua

Tona eta tona kilometroko salgai motaren arabera:

- Nekazaritza produktuak eta bizirik dauden animaliak,
- Elikagaiak eta belar-bazka,
- Petrolio-produktuak,
- Gordinean ekoiztutako edo manufakturatutako mineralak eta eraikuntza materialak,
- Makinak, ibilgailuak, manufakturatutako gaiak eta transakzio bereziak, Bestelako salgaiak.

Eremua

Populazio-eremua:

Azterlanaren xede den multzoa buru traktoreak eta ibilgailu zurrun edo kamioiek osatzen dute, betiere zama-edukiera erabilgarria 3.5 tona baino handiagoa denean, baimendutako gehienezko pisua 6 tona baino txikiagoa eta Espainian matrikulatutakoak.

Baztertuta daude salgaiak garraiatzeko erabiltzen ez diren bestelako ibilgailuak: hondeamakina, arraste-, otzara- eta obra-garabiak, birringailuak, zapalgailuak, suhiltzaileen kamioiak, elurra kentzeko makina, nekazaritzako traktoreak, ibilgailu militarrik eta administrazio zibilekoak.

Lurralde-eremua:

Lurralde-eremuari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoan ibilgailuek egiten dituzten eragiketa guztiak aztertzen dira.

Denbora-eremua:

Etengabeko inkesta da, urteko 52 edo 53 asteetan zehar pilotzen da informazioa. Errepide bidez salgaiak garraiatzeko estatistikaren datuak hiruhileko naturalei dagokie.

Galde-sortak

Hedatzea

- Internet: Laburpen taulak. Organo Estatistikoa.
- Internet: Taula estatistikoak Eustat. <http://www.eustat.es>